

## GETXOKO UDALERRIAREN DINAMIZAZIO EKONOMIKORAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA, ENPRESARIEN ETA PROFESIONALEN ELKARTEEI ETA FEDERAZIOEI ZUZENDUTA. 2023. URTEA.

### 1. Ierroa: Getxoko merkatarien eta ostalaritza-jatetxeen elkarteei eta elkarte horiek biltzen dituzten Bizkaiko federazio eta beste erakunde batzuei zuzendutako dinamizazio ekonomikoko jarduerak egiteko laguntzak.

<b>Xedea</b>	Erakunde horien urteko jarduera-plana garatzen eta gauzatzen laguntzea, Getxoko merkataritza- eta ostalaritza-jardueraren hobekuntza sustatzeko.
<b>Onuradunak</b>	<p>a) Getxoko udalerriko merkatarien eta ostalarien-jatetxeen elkarteak, hurrengo baldintzak betetzen badituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Jarduera eta sozietatearen egoitza Getxoko udalerrian izatea.</li> <li>• Getxoko elkarteen udal-erregistroan eta Eusko Jaurlaritzako elkarteen erregistroan inskribatuak egotea.</li> </ul> <p>b) Bizkaiko lurraldeko federazioak eta beste erakunde batzuk, Getxoko merkatarien eta ostalarien-jatetxeen elkarteak multzokatzen badituzte</p>
<b>Dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak</b>	<p>Diruz lagundu ahal izango dira erakunde onuradunen urteko jarduketa-planetan sartutako proiektuak, honako helburu hauetakoren bat badute: Getxoko establezimenduek bezeroak erakartzea, fidelizatzea eta atxikitzea; udalerriko establezimenduak soilik sustatzea; eta zonako animazioa eta erakarpena. Ekintzek Getxoko establezimenduen onura baino ez dute bilatu behar.</p> <p>Erakunde bakoitzak gehienez bi proiektu aurkez ditzake dirulaguntza jasotzeko.</p> <p>Diruz lagundutako jarduera deialdiaren urtean egin beharko da, eta gehienez ere urte horretako abenduaren 31n, eta gastu guztiak urte natural berean egin beharko dira, ezinbesteko kasuetan izan ezik eta Udalak ontzat eman ondoren.</p>



<b>Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak</b>	<p>a) Langileek, dirulaguntzaren xede den jardueran zuzeneko arduraldia badute (autonomoak edo nominak): gehienez ere dirulaguntzara aurkeztutako proiektuaren guztizko kostuaren % 15.</p> <p>b) Publizitatea eta komunikazioa: ekintzei eta partaideei buruzkoa: gehienez ere dirulaguntzara aurkeztutako proiektuaren guztizko kostuaren % 30.</p> <p>c) Beste zerbitzu profesionalak.</p> <p>d) Kasu bakoitzean, Getxoko udalerriko dinamizazio eta sustapen ekonomikoaren jarduerekin zerikusia duten beste zuzeneko gastu batzuk kontuan hartu ahal izango dira, sariak izan ezik.</p> <p>Zeharkako kostuak eta finantza-gastuak ez dira diruz lagunduko.</p> <p>Diruz lagundutako jardueraren zenbateko osoaren% 90 azpikontratatu ahal izango da gehienez, baina inoiz ez% 50 baino gehiago hornitzaile bakar bati.</p>
<b>Zenbatekoa</b>	<p>Proiektu bakoitzak 12.500 €-ko dirulaguntza jaso ahal izango du gehienez. Dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontuari dirulaguntzaren gehieneko ehuneko bat aplikatuko zaio. Dirulaguntzaren gehieneko ehuneko hori balorazio-irizpideak aplikatuz lortutako puntuen arabera ezarriko da, deialdiaren 17.4 eta 17.5 azaldutakoaren arabera.</p>
<b>Bateragarritasuna</b>	<p>Deialdi honetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuen laguntzekin, salbu eta Getxoko Udalak ematen dituenak eta kontzeptu berberak laguntzen dituztenak.</p> <p>1. eta 2. lerroetako dirulaguntzak ez dira bateragarriak elkarren artean, hau da, erakunde bera ezin da bi lerroetara aurkeztu, ezta proiektu desberdinekin ere.</p>

<p><b>Betebeharrak</b></p>	<p>Erakunde onuradunek, besteak beste, honako betebeharrak bete beharko dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Udalaren oniritzia eskatuko da baldin eta aurkeztutako aurrekontu osoa gauzatzen ez bada edo aurkeztutako proiektuan aldaketaren bat egin nahi bada.</li> <li>- Komunikazio-ekintzak eginez gero (euskarri inprimatuak, elektronikoak, ikus-entzunezkoak edo bestelakoak), euskarri horietan nahitaez agertu beharko da:</li> </ul> <p>1.- ANTOLATZAILEA: Jarduera, ekitaldia edo ekintza antolatu duen erakundearen identifikazioa.</p> <p>2.- DIRULAGUNTZAILEA: Ekonomia Sustapena - Getxoko Udala edo/eta Sustapen Ekonomikoaren eta dirulaguntzaren bat eman duen beste edozein erakunderen logotipoa.</p> <p>3.- Kartelak bi hizkuntzatan (gaztelania eta euskara).</p> <p>4.- Jardueraren edo proiektuaren testuan “Getxo” hitza jartzea.</p> <p>5.- GIZARTE-SAREAK: jarduera edo proiektua gizarte-sareetan hedatzean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabili hashtag #Getxo</li> <li>• Aipatu Twitter, Instagram eta Facebook-en: @getxolan (Getxoko Udaleko Ekonomia Sustapeneko Arloa) eta @GetxoUdala (Getxoko Udala)</li> <li>• Beste gizarte-sare batzuetan erabili hashtag #Getxolan</li> </ul> <p>jarduera dirulaguntza hauen ebazpena egin baino lehen garatu bada ezin ezik.</p> <p>Nolanahi ere, jardueren euskarri grafikoek Ekonomia Sustapenaren oniritzia eduki beharko dute.</p>
<p><b>Eskabideak aurkeztea</b></p>	<p>Laguntza-eskaerak telematikoki izapidetu beharko dira. Izapidetak <a href="http://www.getxo.eus/aeb">www.getxo.eus/aeb</a> web orriaren bidez egingo dira.</p> <p><b>Ekainaren 2ra arte</b></p>
<p><b>Ordaintzeko modua</b></p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Lehenengoz %75a aurreratuko da, laguntzaren ebazpenaren unean.</li> <li>2. Gainerako diru-laguntza, %25a, justifikatu eta baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren</li> </ol>
<p><b>Justifikazioa</b></p>	<p>Justifikazioa diruz lagundutako jarduera amaitu eta 45 egun baliodun igaro baino lehen aurkeztu beharko da, ezarritako salbuespenak izan ezik, eta deialdiaren 12. Artikuluan eskatutako dokumentazioarekin batera.</p>



**Informazioa non lor daitekeen:**

- [BAO zenb.83, 2023/05/02](#)
- Getxolan. Getxo Elkartegia. Ogoño, 1. Getxo. Tlfnoa: 94 466 01 40.
- E-maila: [getxolan@getxo.eus](mailto:getxolan@getxo.eus)
- WEB orrialdea: <http://www.getxo.eus/promocion-economica>